

ARAMA ZAITEZ

6.zenbakia

2014ko abendua

ARAMAKO BERRIEN BOLETINA



AURKEZPENA

Herritarrok,

Urte bukaerarekin batera kalean da Arama Zaitetz boletinaren 6.alea eta beste behin ere, zuentzako eginiko aldizkari honen orrialdeak irakurtzera gonbidatzen zaituztegu.

Hasitako bidean, beti bezala, herri inguruan eta udalean egin diren ekin-tzen errepassoa bildu dugu.

Zenbaki honetan, herritarrok zain gauden gimnasioari buruzko informazioa dugu eta liburutegi inguruan no-bedadeak ere asko ditugu: liburu berriak, mailegu digitalari buruzko informazio... Beraz, adi-adi irakurri eta etorri Aramako Udal Liburutegira no-bedadeak ezagutzera.

Honekin batera, garrantzia eman nahi diogu, aurreko hilabeteen zuen etxeetara bidali genuen PARTE HARTZE galdetegien erantzunak

jaso ondoren, herriaren inplikazioan eta dinamikan, udalak egin duen balorazio eta hausnarketari.

Bukatzeko, betiko atalek ez dute huts egin: lehiaketa eta irabazlearen izena, Anne-ren errezeta goxo bat Gabonetako oporretan presta dezazuen, eta hilabete honetako agenda Gabonetako ekintze-kin.

ONDO PASA GABONAK ETA URTE BERRI ON ARAMATAR GUZTIO!!!



AGENDA

ABENDUAK 19, 20	HAUR TXOKOA APAINTZEKO ESKULANAK
ABENDUA 22	"IRAUNGORRIKO MARIMIRI" ITZAL TITERE ANTZEZLANA
ABENDUAK 23	OLENTZEROREN ETORRERA ETA TXOKOLATE JANA
ABENDUAK 26	MENDI IRTEERA
ABENDUAK 30	GAILLETA TAILERRA TOKI ALAI JATETXEAN
URTARRILAK 2	"SAN NIKOLAS TXIKI" FILM EMANALDIA
URTARRILAK 3	IRTEERAK: TXURI URDIN ETA TIXKI PARK

PARTE HARTZE GALDETEGIARI BURUZ. HERRI DINAMIKA

Hainbat eta hainbatetan hitz egin izan dugu, konfiantzazko jendearekin gehienbat, herritarrok azaltzen dugun inplikazio mailaren inguruan. Askotan pentsatu izan dugu, akaso ondo ariko garela, akaso gaizki, herrian inplikaturik, herriaren biziraupenean inplikazio maila altu bat azaltzen duen bizilagun taldea, murrizta dela, oso murrizta. Eta gehienetan, agian exijitzen dugun maila altuegia dela erantzun izan zaigu.

Gure ikuspuntua justifikatze aldera, herritarren herri batean sinesten dugula adierazi nahi dugu, herritarrek egiten duten herri batean. Kontziente gara, bakoitzak bere bizia dugula, eta orokorrean oso estresatuak bizi garela. Hala ere, Aramarrok non bizi garen kontziente izan behar garela iruditzen zaigu, eta bertan bizitzeak abantailak ekar diezazkigukeela, baina baita ere langintza bat; gure iritziz behintzat. Ondoko herrian 200 bat udal langile egon daitezke herriko betebeharrerarako; Araman, esku bateko behatzen erdiak sobratuko litzazkiguke kontatu ahal izateko. Noski ezin garela konparatu ondoko herriarekin, ez tamainaz, ez biztanlez, ez lanaz, ez teknikariz... horregatik egiten gaitu ezberdinak, eta horregatik gure jarrera ere ezberdina izatea derrigorrezkoa da.

Kezka hau abiapuntu hartuta, herritarren inplikazioaren pertzepzioaz erradiografia bat egin

nahi izan dugu. Hori eratzeko, galde-tegi bat helarazi dizuegu 16 urtez gainera herritar guztioi. Guztira, 140 inguru galde-tegi bidali dira, izen abizenekin, eta bost minutu hartu eta betetzeko eskatuaz.


Erantzuna anonimoa izatea nahi izan dugu, pentsaera ezberdinak izan daitezkeenaren jakitun, nork zer pentsatzen duen jakiteko beharrik ez dugula ulertu dugu eta.

36 erantzun jaso dira. Erantzun EXKAXA, beraz. Erantzun dutenen artean, gehiengoak beti betikoak gabiltzala kontu ezberdinetan uste du. Gu geu ere pentsaera berdinekoak gara eta ez dugu atsegin hori horrela izatea sentitzea. Eta ez deritzogu bidezkoa, HERRI bat gutxi batzuen bolondresko lanaren esku uztea, gero kalean kritikatzeko eskubidearekin, noski. Ez deritzogu bidezkoa, bakoitzak sudur puntan jartzen zaiona egitea, bost axola herriko arauak eta ordenantzak, bost axola bizikidetzatza...

Oraindik ere, herritarren herri batean sinesten dugu. Eta hori da gure helburu.

Gure asmoa ez da izan bizilagunak kritikatzeta. Galde-tegiarekin, bizilagunari pentsa arazi nahi izan diogu, akaso, denon aldetik jarri beharko genukeela zerbait.

Erantzuna eskatu zaien herritar kopurua:	140
Erantzun duten herritar kopurua:	36
Erantzun duten herritar kopurua:	104



HERRIKO LANAK

AGARRE ETA MENDIZABAL BASERRIEN UR ZIKINEN SANEAMENDU HODIA

Aramako baserrietako ur zikinen saneamendu hodian proiektuko adar gehienak amaituta daudenez, aurtengo urteko aurrekontuaren kargu, Foru Aldundiaren laguntzarekin, Agarre eta Mendizabal baserrietako ur zikinen saneamendu hodia sartzeko lanak hasi berriak dira.

Lanak Lurkide Hodalanak enpresak burutuko ditu, egindako kontratazio prozeduran, empresa honek aurkeztu bait zuen proposamen onuragarriena. Obrak 68226,15 eurotan esleitu dira, eta lanak hilabeteko epean amaituko dira. Aldundiak agindutako laguntza 29070,64 eurokoa izan da.

LOITZARAKO BASO PISTEN KONPOKETA

2013an izandako euriteen ondorioz, kaltetutako pisten konponketa burutu zen. Baina aurtengo udaran Loitzara dihoan baso pista konpontzeko eskaera berri bat jaso ondoren, ikusirik bidea konpondu beharrean zegoela, udalak lan hori egitea agindu du. Lanak amaitu dira eta udalak ordaindu beharreko faktura 9191 eurotako da.

GIMNASIOA MARTXAN

Urtarrilean Aramako soinketa gunean gimnasioa irekiko da Aramatar guztiontzat. Bertan 4 spinning bizikleta, 2 eliptika, korrikako zinta 1 eta luzaketak egiteko makina 1 daude.

Gimansioa erabili ahal izateko, sarrera txartela eskatu behar duzue udaletxean eta bertako makinak erabiltzeko **kuota 5 euro izango da (gutxiengoa 30 euro, 6 hilabeteko epetan egingo delarik kobrantza).**

Gimnasioa irekita egongo da 8:00etatik 21:30era astelehenetik ostiralera, eta 9:00etatik 14:00etara igande eta jaiegunetan.

Makinak erabili aurretik eskuragarri izango dituzuen **“gimnasioa erabiltzeko arauak”** IRAKURRI JARDUERA ONDO EGIN AHAL IZATEKO.

EUS. DOMEINUA

EUS domeinua, Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatearen Interneteko lehen mailako domeinua da. Bere helburua euskara eta euskal kultura sustatu eta Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatea kohesionatzea da. .eus, hortaz, tresna bat da, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen duena, euskararen normalizazioan lagunduko duena eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen diona.

Gaur egun www.aramaudala.net helbidean dagoen udal web orria **www.arama.eus** domeinu modura erregistratu, aktibatu eta ikusgarri izateko pausoak eman ditu Udalak, euskara eta euskal kulturaren komunitatea kohesionatzeko axola handiko tresna baita.



ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
	1	2	3	4		
○ 5 lbelea	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	○ 20 lberria	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	
					02:01 lbehea	

Babespean / Negutegian: Tipula, porrua
Aire librean: Espinaka, ilarra, baba, baratxuri alea, tipula errebolia

EREN

Babespean / Negutegian: Eskarola, letxuga, tipula
Aire librean: Uddaberriko aza

LANDATU

Baratzako lan bakoitzerako egun egokienak

- Fruitua:** tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak...
- Sustraila:** azenario, arbi, erremolaxa, patata, tipula...
- Lorea:** lorea, girasola, brokuli...
- Ostoa:** letxuga, porrua, eskarola, aza, espinaka...

EGUNORDU DESEGOKIAK: ATSEDNA

Beste lanak:

Libre ditugun lur sailak goldatuta edo atxurtuta utzi ditzazkegu, izotzak lur morkorrak birrintzen laguntzen du eta adaberrian lurra erraz lantzeko moduan.

Fruta-arbolak aldatzeko ere lurra aurretik prestatu dezakegu, zuloak egin eta kompostarekin ongarrantuta prest utzi.

Fruta-arbola, zuhaitz eta zuhaixka apaingarriak eta landare usaidunen inguruan simaur edo komposta jarri.

Fruta-arbolak, fruta txikiak, zuhaixkak, larrosak aldatu. Jarraitu planifikazioa lantzen.

Jarraitu planifikazioa lantzen. Horren arabera, hazien erreserba errepasatu, izango ditugun beharrik asetzeko modukoa izango den jakiteko. Hazitegiaren prestakuntzaren begira ordo aztertu

negutegiak, agian konponketaren bat beharko dute. Udazkenean batutako artoa aletu. Xehetuta pentstakorako erabili. Zelaietako itxiturak konpondu.

ASTELEHENA

ASTEARTEA

ASTEAZKENA

OSTEGUNA

OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA

UDABERRIKO
TENPORAK

BARATZA

Babespean / Negutegian: Tipula, porrua, berenjena, tomatea, piperra


Aire librean: Espinaka, ilarra, baba, baratxuri aldea, patata

ERGIN

Babespean / Negutegian: Letxuga, azelga, tipula

Aire librean: Udaberriko aza, tipulina, tipula, marrubia, porrua

LANDATU

Baratzako lan bakoitzerako egun egokienak**Fruitua:** tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak...**Sustraiak:** azenario, arbi, erremolatxa, patata, tipula...**Lorea:** lorea, girasola, brokuli...**Ostoa:** letxuga, porrua, eskarola, aza, espinaka...**EGUNORDU DESEGOKIAK: ATSEDENA****Beste lanak:**

Izotz arrisku handirik ez den egunetan, fruta-arbolak eta hostoa galkorra duten zuhaitzak eta zuhaiak kimatu.

Fruta-arbolak, fruta txikidun zuhaiak eta hosto galkorra duten beste landareen aldatzekin bukatu.

Marrubi landareak urtebete gehiago mantendu behar baditugu, bakandu eta ongaitu.

Fruitanboletan adarreak txertatze egiteko asmoa badeagu, justu izendatu mugitzen hasi aurretik egitea komeni da, beraz, hilabete honetan adar gerezi, aran, melokoti eta goizeko fruta-arbolekin Eguraldiak uzten bada goizeko patatak ereri eta lehen tipulak landatu ditzakegu. Gure baratza babestuko duten landare-hesiak landatzeko momentu ona. Bertako jatorria dauzkaten zuhaitz eta zuhaiak aukeratu. Bideak txukundu, sasi eta zakarrez libre mantendu. Urdideak garbitu, udaberriko euriek ez dezaten kalterik eragin zeldi eta baratzean.

Abeltzaintza:

Abeltzaintza ekologikoa ezinbestekoa da simaurraren kudeaketan, lurrena ongaitu organikoak itzultzeko, larrea mantentzeko eta abar, bioaniztasunak eta paisaiak mantentzeko beharrezko izanik.

KIRIBIL PROIEKTUA



Araman garai batean bazen eskola. Egun, herriak eskola izatearen garrantzia ere aipatu da maiz herritarren artean eta badirudi, aukeraren bat badagoela ideia hori errealia bihurtzeko.

Araman, Kiribil Hezkuntza Proiektuaren laguntzarekin, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea (3-12 urte bitarteko ikastetxea) martxan jartzeko lanketa bat ematen ari da. Proiektua garatu ahala, herriko haurrek hezkuntza Araman bertan jasotzeko aukera bermatuko litzateke eta landa garapeneren ikuspuntutik aurrerapauso handia litzateke.

Proiektuaren oinarritzko ideiak:

- Haur eta lehen hezkuntzako legezko ikastetxea izango da Kiribil, Jaurlaritzako hezkuntza sistemaren barruko ikastetxea.
- Eusko Jaurlaritzak baimendutakoa (baimen administratiboa eskuratu da dagoeneko) eta itunpekoa edo kontzertatua izatea du helburu (Jaurlaritzak ordainduko litzuzke irakasleen soldatak).
- Proiektuaren hasieratik Ikastola elkartearekin harremana izan da eta asmoa ikastola izaera izango duen ikastetxea sortzea da.
- Hezkuntza berrikuntza proiektuaren ardatzetako bat izango litzateke eta metodologia berritzaileak aplikatuko lirateke, haurren erritmo eta beharretara egokituz.
- Ikastetxea Kiribil hezkuntza kooperatiba integralak kudeatuko luke (guraso, irakasle zein bazkide laguntzailez osatutako kooperatiba).
- Araman aterpetxe bat martxan jarriko litzateke, eskola ordutegi eta egutegitik kanpo. Gainera, ikastaroak, jardunaldiak, topaketak, hitzaldiak... ere antolatuko lirateke.

Herri txikietan eskola egotearen garrantzia edozein diagnostikotan nabarmentzen da. Ikastetxe txikia izateak, gainera, aparteko abantailak ditu bertan dauden haurrentzat, eta beraien familientzat. Aramako bizitza berpiztu, herri bizitza indartu eta dinamika berria abiatzeko abiaputua suposatu dezake ikastetxea martxan jartzeak.

Aurrerapaskoak nabarmenak dira. Momentuz, Jaurlaritzaren baimen administratiboa lortu da eta pasa den astean bertan proiektua aurkeztu zen Gipuzkoako Foru Aldundian (Nekazaritza eta landa garapeneko, lurralde antolamenduko eta parte hartzeko zuzendariei).

Zentzu honetan, GFAk proiektua egoki baloratu du eta elkarlanerako prestutasuna ere azaldu du. Horrela, eraikineko obren exekuzio proiektua egiteko aukerak aztertuko dira Aldundiarekin.

Ez da proiektu erraza baina bai ilusioz betetzen gaituena. Lan-taldea handitzea eta Aramako herritarren inplikazioa esanguratsuagoa egitea da helburua. Interesa izanez gero, jar zaitezte Kiribil Hezkuntza proiektuarekin harremanetan, guztion artean lana aberasgarriagoa izango baita.

Beraz, egin dezagun bidea. Aramak izan dezala ikastetxea, bihur dadila herriko bizitza biziagoa eta Aramako proiektu hau izan dadila beste herri batzuetan egin daitekeenaren proiektu aitzindaria.



ARAMAKO UDAL LIBURUTEGIA

ARAMAKO UDAL LIBURUTEGIA

ETORRI EZAGUTZERA

BERRIAK, NOBEDADEAK, SALDUENAK

Irakurleok, Aramako Udal Liburutegian helduentzako gaztelerazko liburu berriak irakurtzeko aukera izango duzue. Udalak liburutegian dauden beharrak ikusirik gazteleraz eta genero desberdinetako ale berriak erosi ditu: azken nobedadeak, salduenak, thriller-ak, laguntzazkoa, eleberriak, literatura klasikoa...

Azken batean, helburua liburutegia erabiltzen hasia bait da eta ikusirik orain arte haurrak direla erabiltzaile nagusiak, gazte eta helduei ere atea ireki nahi dizkiegu erosi ditugun 50 inguru ale berri hauekin.

Liburuak erosteko, udalak egin duen gastua 800 euro-

takoa izan da eta Eusko Jaurlaritzatik 520 euro jaso ditugu liburutegietako liburu-funtsak berri edo handitzeko dirulaguntzetatik.

ETORRI IKUSTERA!



Liburu digitalak mailegatu daitezke Aramako Udal Liburutegian.

eLiburutegian formato digitalean irakurtzeko aukera izango duzu.

Zerbitzu horretara sartzeko: www.euskadi.net/eliburutegia

Bertan duzue informazioa guztia

Mailegu zerbitzu berri honen edozein zalantza argitzeko udalera jo dezakezu eta bertan behar duzun informazioa eta argibideak emango zaizkizu.

ERREZETA BARAZKITXOAK FOIE FRESKOAREKIN

Anne Otegi, Aramako Toki Alai
Jatetxea



OSAGAIAK

Lekak

Brokolia

Azalorea

Azenarioa

Kuiatxoa

Foie gordina

PRESTAKETA

Moztu barazkitxoak. Moztu lekak makiltxoetan, brokolia eta azalorea sorta txikitan, azenarioa makiltxoetan eta kuiatxoa borobiltxoetan.


Egosi barazkitxoak bakoitza bere aldetik. Barazkiak ahal den denbora gutxien eduki behar dira uretan kurruskari gera daitezen, horretarako ur hotzetatik pasa.

Denak egosita daudenean zartagin bat berotu olio pixka batekin; eta bertan, barazkitxoak erregosi gatz eta piperrauts pixka batekin. Ipini platerean.

Bukatzeko, moztu foie zati txikitan eta erregosi zartagian xigortu arte.

Ipini foie zatiak barazkitxoaren gainean eta prest!!

LEHIAKETA



BEHIA
ANTXOA
ELTXOA
GORILA
LEHOIA
UNTXIA
ARRANOA
DORTOKA
IZURDEA
OLAGARROA
AMUARRAINA
KARRAMARROA

Udaletxeko buzoi-
an sartu zure
erantzuna.

Toki Alai jatetxean
2 lagunentzako
asteburuko menu
baten zozketan
sartuko zara.

Zorte on.

Aurreko boletinean parte hartu dutenen artean zozketa egin
dugu eta badugu irabazlea:

MAIDER UNANUE

ZORIONAK!! Eta mila esker parte hartu duzuen
guztioi!!